



1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Geure bizitzaz kezkatuak ez egoteko dio Jesusek. Zerk itotzen gaitu? Zein kezkek kentzen digu bakea?
- ✓ Mateoren ebanjelioko 6 atalean, geure konfiantza eta segurtasuna aberastasunetan ez jartzeko esaten digu Jesusek. Ezin diegu aberastasunei eskatu inoiz ere eman ezin izango digutena. Norengan jartzen dut neure konfiantza? Nire bizitzan, norengan dut uste ona? Jainkoarengan dut uste ona ala beste norbaitengan? Zergatik kostatzen zait konfiantza inorengan jartzea? Esperientzia ezkorren bat izan al dut, neure burua inorengan uztea eragozteko adinakoa?
- ✓ Jesusek dio: «Ardura zaitzete Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta gainerako guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak». Zer dut lehendabiziko gauza nire bizitzan? Saiatzen al naiz Jesusen bila, eguneroko bizitzan haren presentzia sumatzen ahaleginduz?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Kristauaren otoitzean, lehendabiziko pausoa nork bere burua Jainkoaren eskuetan, haren Goi Arduraren eskuetan, uztea da. Honako hau esatea bezala: «Jauna, Zuk dena dakizu; ez dizut deus ere esan beharrik, ez dizut neure sufrimenduaz hitz egin beharrik. Nire ondoan izatea besterik ez dizut eskatzen. Zuregan dut itxaropena».

«Aita, ez dezala beldurrik izan neure burua zure eskuetan uzteko. Ikus dezadala, Jauna, neure burua zure eskuetan uztea, naizen osoa zure eskuetan uztea dela. Zuk aintzakotzat hartu nauzu benetan; horregatik zaintzen nauzu eta babesten; bizia eta dohain asko ematen didazu. Lagun iezadazu, nik ere Zu benetan hartzen, neure burua zure eskuetan uztean.»

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Ebanjelio-zati honek konfiantza Jainkoaren gero eta sakonago jartzera deitzen gaitu. Horrelako konfiantzak aldarazi egin behar digu eguneroko biziera. Hari honetan, ongi datorkigu Loiolako San Ignazioaren gomendioa: «Jardun ezazu dena zure ardurapean balego bezala, baina dena Jainkoaren ardurapean dagoela jakinik».

JAINKOA
JARTZEN
DUT NIRE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

3. FITXA, Mt 6. 25-34

EZ KEZKATU
JAINKOAREKIKO KONFIANTZA



Donostiako
Gotzaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRUNA
ANIVERSARIO



Mt 6, 25-34

25 «Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jan edo edango, edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? 26 Begira aireko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez ote duzue horiek baino askoz gehiago balio zuek?

27 Askok arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza apurtxo bat ere?

28 «Eta jantziak, zertan kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaian: ez dira lanean penatzen, ez dute iruten; 29 baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako baten pare. 30 Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, ez ote askoz gehiago zuek, sinesmen gutxiak?

31 Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. 32 Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuenak. 33 Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak. 34 Ez arduratu, bada, biharko egunaz, biharkoak ere ekarriko baitu bere ardura. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhaustek.



Textua ulertzeko

- ✓ Santa Teresa pertsona apala zen, ez zuen konfiantzarik bere buruagan, baina erabat seguru ikusten zuen bere burua Jaunaren beso indartsu eta maitetsuetan. Hona zer dioen: «Konfiantzak gida gaitzake Maitasunera, beste ezer ere ez». Konfiantza dugu eguneroko euskarria eta horrek iraunaraziko digu zutik Jaunaren begiradaren aurrean, Berak gu beregana deitzean. Askotan beldurrak estutzen gaitu, giza segurtasuna nahi izateak, dena kontrolpean eduki nahi izateak. Horrek guztiak itxaropena galtzera garamatza, ito egiten baikara. Eta orduan agertzen da geure burua Jaunaren esku «utzi» beharra, Jauna geurekin duguneko konfiantzak eraginik, Berak beti zaintzen baititu bere sorkariak.

- ✓ Bibliako testu honek egia kontsolagarrietako bat adierazi digu: Jainkoaren Goi Ardura. Jainkoa ez da gutaz ahazten; gogoan du gutako bakoitza, bere izen-deituraz. Maite gaitu, eta ez da gutaz ahazten.
- ✓ «Aberats-zaletasunak bihotza hartzen duenean, ez du toki handirik fedearentzat; aberats-zaletasunak betetzen du dena; ez dago tokirik fedearentzat. Baina Jainkoari dagokion tokia uzten badio, lehenbiziko tokia alegia, orduan aberastasunak erdibanatzera eramango gaitu maitasunak, proiektu solidarioen eta garapen-proiektuen zerbitzura jartzera» (Frantzisko aita santuak).
- ✓ Ez kezkatu, zuek baino handiagoa den Bat erne baitago, zuen zaintzen. Ez hartu dirua ezta beste zein-nahi sasijainko, duen ahalmena duela edota eskaintzen duen atsegina nahiz aberastasun eskaini, ez hartu adiskidetzat, faltsua baita, zorionik ezin eman duena.
- ✓ Ebanjelio-zati honetan, Jaunak ez gaitu geldotasun arduragabe eta inozoan bizitzera deitzen, konfiantzaz bizitzera baizik. Proba etortzen zaigunean, edota oinaze fisiko nahiz morala, mila galdera geure buruari egin eta inork erantzun ez digunean, hiltzen ari garela iruditzen zaigu. Hori guztia, ordea, azken-aurreko hitza da, latza eta gogorra izanik ere: azken-aurreko hitza baizik ez da. Gauzei buruzko azken erantzuna entzuteak, Jainkoak beste inork ez duen erantzuna entzuteak emandako itxaropenak, inork kendu ezin digun itxaropenak, betetzen gaitu pozkidaz.
- ✓ Honela zioten San Joan Gurutzekoak eta santu handi batzuek: «Jainkoagandik guk zenbat espero, hainbat hartzen dugu». Baina gerta dakiguke ez sinestea. Zail gertatzen zaigu geure burua Jainkoaren eskuetan uztea. Ez dugu asko pentsatzen nor den Jainkoa, ez dugu kontuan hartzen haren ahalmena, ahaztu egiten zaigu Aita dugula eta guretzat hoberena nahi duela.
- ✓ Geure burua Jainkoaren eskuetan uzteak ez du esan nahi eguneroko gorabeherak alde batera utzi behar ditugunik, baina bai itomenetik libratzen gaituela. Ez du esan nahi geure betebeharrak eta ardurak baztertu behar ditugunik ere, baizik eta gure jarrera beste era batekoa izango dela eginahalak egin bai baina hortik aurrerakoa Jainkoak egingo duela sinesten dugunean. «Jainkoak egiten du ia dena eta zuk ezer gutxi; baina Jainkoak ez du ia dena egingo, baldin eta zuk ezer gutxi hori egiten ez baduzu .

